

58 haur euskarazko plazarik gabe geratu dira Iruñeko haur eskoletan

IRUÑEKO UDALAK 164 plaza eskaini ditu euskaraz haur eskoletan, eta 58 haur geratu dira tokirik gabe, %26 baino gehiago. Arrotxapea auzoan 31 haur geratu dira plazarik gabe eta Txantrean 27.

Iruñeko gurasoen aspaldiko eskaria da: euskarazko plazen eskaintza handitu eta plaza horiek hainbat auzotan banatu. Bigarren eskaerari erantzun zumea eman dio Udalak. Orain arte Txantrea auzoan zeuden euskarazko plazak eskaintzen zituzten bi haur eskolak, eta aurten bata Txantrean dago eta bestea Arrotxapean. Lehenengo eskaerari ordea, entzungor egin dio. Iaz 164 ziren euskarazko plazak eta aurten ere bai. Euskarazko plazak eskaini diren bi haur eskoletan 222 euskarazko plaza eskatu dituzte gurasoek. %26 plazarik gabe geratu da.

Kontseiluaren baitan biltzen den Iruñeko Euskalgintzak euskalerria.eus-en adierazi duenez, gainerako auzoetan ere euskaraz-



EIDER MADINA

Aurten Txantreako Egunsenti haur eskola gaztelaniazkoa da. Arrotxapean ireki dute euskarazkoa.

ko plazak eskaini behar lituzke Udalak, eta horrela, iruindarren euskaltzaletasuna nabarmenago agertuko litzateke. Izan ere, Txantrea eta Arrotxapea ez beste auzoetan gurasoek ez dute euskarazko plazarik eskatu seme-alabentzako bai baitakite ez dela halakorik eskaini. Egiazko euskarazko eskaria neurtu nahian, iaz galdeketa egin zuten gurasoen artean eta 466 haur euskarazko haur eskoletan matrikulatzeko nahia agertu zuten.

Bahea

Beñat Gaztelumendik argia.eus-en esanak:

“Euskaraz mintzo naizenean, Delhiko aldirietan oinutsik dabilen haurra mintzo da nire ahotik; bi haur eta maleta bakarra eskuetan hartuta etxetik bota duten ama; neska-lagunari ezpainak jan dizkion neska; (...) pankarta bati helduta fabrikako atarian dauden buzo urdindunak; (...) Amazonia ertzean kautxu fabrikek etxe gabe utzitako katagorria eta artikoan urtzen ari den izeberg galdu baten muturrari hatzaparrekin heltzen dion hartz zuria; hutsik zegoen etxe bateko hormak spray koloretsuz margotu eta balkoian izarak banderak bailiran zintzilikatu dituen Bartzelonako okupa; izarrei begiratzen irakatsi ziguten maiak eta lurrari ez begiratzen ikasi genien amazighak mintzo dira nire ahotik euskaraz ari naizenean; (...) Che, Galeano, Simone de Beauvoir, Marx, Frida, Picasso, Evo, Eva, Graziana, Bobby Sands, Martin Luther King, Mandela mintzo dira nire ahotik euskaraz ari naizenean; euskaraz aritzea, epaileak erdaraz mintzo diren garaioetan, justiziaz aritzea baita”.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Immigrazioaren sorburuari egin eraso

MEDITERRANEOAN 800 etorkin hil ziren naufragiotik hilabete igaro denean, Europar Batasunak baiezkoa eman dio trafikanteen jarduna deuseztatzeko operazio militarri. Aurrekaririk ez duen misio horretan, Europako ejertzitoetako gerraontziak eta hegazkinak Libiako kostaldean ibiliko dira, herrialde hori baita etorkinen abiagune nagusia. 2014an 170.000 lagun iritsi ziren itsasoz Mediterraneoaren alde honetara. Aldi berean, zenbait albisteren arabera, 7.000 lagun daude itsasoan noraezean Bengalako Golkoan, batez ere Birmaniakoak. Badirudi 100 pertsona hil direla jadanik itsasontzi horietan, janaria lortzeko etorkinen artean sortutako liskarren ondorioz. Laster ur gaineko hilerri bihurtuko dira. Indonesia, Malaysia eta Thailandia irtenbide bila ari dira.

Gobernuentzako errazena operazio militarrek egitea da, etorkinen kontra aritu eta trafikatzailak eraso. Azkeneko hau kontuan eduki behar da, baina ez da irtenbidea Mediterraneoeko eta Asiako hegoaldeko immigrazioa konpontzeko. Jatorriko arra-

zoiak eraso behar dira. Horregatik, konponbideak ekonomikoa eta politikoa behar du izan. Europak eta Ipar Amerikak badakite hori, baina... Soluzio ekonomikoak behar dira inor ez dadin migratzera derrigortua izan bizirauteko. Etorkinak esportatzen dituzten herrialde horiei lapurtu eta ustiatutakoa itzultzea izan liteke hasiera on bat. Espoliazioan parte hartu duten NDFk eta Munduko Bankuak bertara bideratu ditzakete euren diru-funtsak. Eta soluzio politikoak ere badaude gerran ari diren herrialdeentzat. Badakigu gatazka horietako asko zenbait herrialde aberatsek sustatzen, bultzatzen eta ordaintzen dituztela.

Kudeatzaile politikoek, nazioarteko erakundeek eta gizarte zibilak berak ezin dute geldirik egon; larrialdi humanitario honi irtenbidea eman behar zaio. Ezin dugu utzi munduko itsasoak etorkinen hilerri izaten segitzen. Denok gara erantzule.

Juan Mari Arregi